

SALMUAK

Ezagutu daiguzan, ba, orain eta leenen, Qumran'go *Salmuak euskeraz*.

Salmo oneik oso ederrak dira, Biblian datozanak baizen onak, adierazleak diñoenez. Zortzi dira guztiz.

(Jakintzat artu bear diran berbak, mako-artean datoz).

XVIII

18'garren salmu onetan inu persona-talde agertzen dira: lauak, zintzoak edo bikaiñak eta gaiztoak. Lauai, Lagunarteari batzeko egiten yake dei.

«Jainkozaleak eta onak» parean ezarten dira, baita jakituria darabillena eta opariak eskintzen dauzana be. Jakituria persona lez artzen da.

!Alkartu egizuez bikaiñakaz zuen arimak. Goratu egizue bikaiñakaz batera Gorengoa, alkartu zakieze.² Lau guztiai Aren salbamena ta aundi-izatea ezaguerazoteko ardurabageak ez izan. Jaungoikoaren aintza agertzeko emon yatzue jakituriata.

⁴Baita Aren egintza pilloa esateko be, Adan'i ezaguerazo yakozan egintzak. ⁵Lauai Aren sendotasuna agertzeko; biotzastunai Aren aundi-izatea ulerterazoteko; Aren ate-zubietatik urrun dagozan arei; euren oinkadetan uts egiten diarduenai. ⁷⁻⁸Bera, Gorengoa, Jakob'en Jaun bakarra da-ta.⁹Aren aundi-izatea egintza guztien geiñetik egiten dau dizdiz.

Gorengoa goratzen dauan gizona da ioAren atsegingarri; odol-bagako oparia eskintzen dauan gizona, auntzak edo zezanak eskintzen dauzana lez,

!! Altara-gaiñean opari pilloaren koipea eskintzen dauana lez, zintzoen kutik usaingarri gozoa eskintzen auana lez.

¹²Zintzoen ate-zubietatik entzun zan area abotsa, ¹³Jainkozaleen batzarretik (igoten da) aren abestia.

Ase arte jaten dabenean, aretzaz giten dabe berba, eta, alkarregaz naitasunean edaten dabenean, ¹⁴Gorengoaren legea ausnartzen be. Arein berbak Aren sendotasuna ezaguerazoteko dira.

¹⁵Dongakandik urrun, benetan, aren itza, gaizto guztiakandik urrun ezaguerata!

¹⁶Jaungoikoaren begiak, barriz, onakanako biozperatsu. Ugaritu egiten dau Arek bere biotz-ontasuna Bera goratzen dabenen gaiñera.

¹⁷Askatu egingo dauz aldi txarretik arein arimak. Bedeinkatu egizue Jaungoikoa, apalak arrotzen eskutik erosi !seta bikaiñak dongen eskutik askatu egiten dauz-ta; Jakob'en indarra agerterazoten dau, baita Israel'dik errien auzi-ebazle bat be. ¹⁹Berak jarri eban bere txabolea Sion'en, eta Jerusalem'en bizi da betiko.

KEREXETA

XIX (euskerazko 2'garrena)

19'garren salmu au asketze-salmua da. Gizonak, alde batetik bere makaltasuna eta bestetik bera inguratzan daben ainbat arrisku ikusirik, ez dau bere burua sendo ikusten, eta, eskari au egiten dan: ez daitela ondandian jausi eta Satanas'egandik askatu daitela.

!Lur-arrak ezin goratu zaizez, ezta biziotoak be zure biozperatasuna azaldu. ²Bizidunak, arnasadunak, onek bai, onek goratu egiten zaitu. Oin-koloka dagozan guztiak bedeinkatu egingo zaitue zeure biozperatasuna ezaguerazo dagizunean.

³Eta zeurezuntasuna irakatsi dagiezunean, edozein bizidunaren arimea zeure eskuan dago-ta.

⁴Ba-dakit aragi guztiai biziZeuk emon dautsezuna.

Egizu gugaz, Jaungoikoa.

⁵Zeure ontasunaren eraz, zeure erruki ugariaren eraz etazeure zuzentasun-egintza pilloen eraz. Entzun dozu.

⁶Jaungoikoa, zeure izena maite daben guztien abotsa, eta ez dozu aldendu arekandik zure arreta.

⁷Bedeinkatua Jaungoikoa, zuzentasun-egintzak beteten dauzana,

⁸Jainkozaleai biozperatsu ta errukitsu koroea ezaten dautsena. Nire arimeak deadar egiten dau, zure izena esker-emoteaz goraturik; (nire arimea) bitsetan dago ⁹zure errukiakaz.

Ez da azkenik izan bear zure zintzotasuna ta gorapena iragartean.

Eriotz-zorian nengoan lonire pekatu ta gaiztakeriakaitik, Lezara saldu izan nenduen gaiztakeriakaitik. Jaungoikoak atara nenduan,

¹⁰Bere errukiaren eraz etabere zuzentasun-egintza ugarien eraz.

Egian esan, maite dot nik ¹²zure izena, etazeure gerizpean babestu naz.

Nire biotza adorez beteten da zeure aal-izatea gogoraturik.

¹³Zeure errukitan jarten dot nire ustea. Parkatu, Jaungoikoa, nire pekatua.

¹⁴Garbitu egizu nire dongakeria. Emoidazu sinismen eta ezague-
ra-espirtua, eta ez daistela re izenona kendu.

¹⁵Ondamendian, ez nagiala Satanas'ek azpiratu, ezta espirtu zikiñak be!

Oiñaze ta jokera ¹⁶gaiztoa ez daitezala nire azurren jabe egin. [zan be, Zeu zara, Jaungoikoa, fire gorapena eta Zeugan itxaroten dot ¹⁷egun oro. Poztu beriz nigaz batera nire anaiak eta nire aitaren etxea, zure laguntzak mirarrituta.

¹⁸Poztu egingo naz betiko.

KEREXETA